

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko urriaren 4an egindako tailerraren akta



• Eskerrik asko guztioi!

Eskerrik asko gure gonbidapena onartu duzuelako, gogoz eta ilusioz beterik etorri zaretelako, elkarrekin lan egiteko prest zaudetelako,... Gaur, gainera, autobusa jarriko dugu martxan eta pozik gaude horregatik, zati batean lorpen hori Agenda 21eko Foroarena delako. Mila esker guztioi!

Ana Moreno (Eiluz) • Maite Berasategi (Eiluz) • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Montse Vallejo • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Floren Gutierrez • Miguel Romarate • Mailo Pinillos (Ilinti merkatarien elkarte) • Junkal Fernandez • Manuel Fernandez (Nagusilan) • M^a Angeles Prieto • Glori Martinez de Guereñu • Pilar Makibar • Feli Nuñez • M^a Cruz Lizarazu • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Sagrario Diaz Lopez • Asier Zaldúa • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Rafael Gomez (Buskabaso) • Juan Carlos Agirre • Javier Iraeta (zinegotzia) • Mila Adurriaga (Garagune) • Asun Jauregi (Garagune) • M^a Soledad Vergara (Garagune) • Manu Etura (Garagune) • M^a Ines Rodriguez (Garagune) • Kepa Urzelai (Alkatea) • Igor Urrate (zinegotzia) • Ane Mendiñeta (udal arkitektoa) • Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea).

• Gaurko tailerraren "menua"

Gastronomiaren munduarekin alderatu dugu gure gaurko tailerra eta, horren arabera, lehenbizi aperitiboa izan dugu, gero plater nagusia eta bukatzeko postre berezia:

- Aperitiboa: **berri** laburrak.
- Plater nagusia: **irisgarritasuna Legazpin**, foroan aztertuko den gaia.
- Postre berezia: "Junetorri" **herri-autobusa estreinatuko** dugu.

- Bukaeratik hasiko gara, postretik!

“Junetorri” herri-autobus berria estreinatuko dugu. Berdea izango da bere kolorea.!

Gaurko postrea gozoa izan da benetan.... Horrela, Legazpiko Agenda 21eko Foroak “Junetorri” izenarekin bataiatu den herri-autobusa lehen aldiz erabiltzeko aukera izan du. Autobusak Legazpiko kaleetatik ibiliko da datorren urriaren 15etik aurrera.



“Gaur, autobusari esker, Legazpiko txoko batzuk beste ikuspegi batetik ikusi ditut. Legazpin, “Junetorri” autobusaren lehenengo bidaian jasotako hitzak.

Eta ez hori bakarrik: geralekuak bertatik bertara ikusi ahal izan ditugu; ordutegia zein izango den jakin dugu eta autobusaren barrualdea ezagutu dugu eta, horrezaz gain, Agenda 21eko Foroak autobusaren kanpoaldeko estilismoa erabaki du. Eta kasu honetan, argi dago Foroak zer nahi duen: autobusa berdea nahi du.



iHalakoa izango da “Junetorri”



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Beraz, horrela ikusiko dugu laster autobusa Legazpiko kaleetatik! Udal arduradunek adierazi digutenez:

- Herri-autobusa datorren urriaren 15ean jarriko da martxan.
- Lehenengo hilabetean, legazpiarrek doan erabili ahal izango dute autobusa.
- Ondoren, txartelaren prezioa 0,20 eurokoa izango da ibilbideko.
- Epe bat igaro ondoren eta behar izanez gero, berrikusi eta eguneratu egingo dira bai ibilbidea eta bai ordutegia.

• Plater nagusiarekin jarraituko dugu Nola hobetu Legazpiko oinezkoen ibilbide nagusietako irisgarritasuna?

Inma Hernandezek (Agenda 21eko teknikaria) eta Ane Mendinuetak (udal arkitektoa) azaldu digute gaia eta Agenda 21eko Foroan planteatu dute helburua:

1. Koka gaitezen:

Esan dugun izenburuaren aurrean, "Nola hobetu Legazpiko oinezkoen ibilbide nagusietako irisgarritasuna?"...

Zein da helburua?

- Udalaren eta udalerrriaren helburu nagusietako bat hirigintza arloan, espazio publiko bizia lortzea da. Kale atseginak, adeitsuak, harremanak sustatzea bultzatuko dutenak...; eta horietan oinezkoa izango da protagonista.
- Beste modura esanda, hauxe da bilatzen duguna...
 - Legazpiko auzoak hirigunearekin ongi komunikatuta egon daitezela.
 - Auzo bakoitzeko barruko ibilbide nagusiak oinezkoentzako erosoak eta seguruak izan daitezela.
 - Oinezkoek lotura zuzena izan dezatela udalerriko erabilera nagusien artean (udal ekipamenduak, leku klabeak,...).
- Eta gauza garrantzitsua: oinezkoen ikuspegitik irisgarritasunaz eta adeitasunaz hitz egiten dugunean ez diegu oztupo arkitektonikoei bakarrik erreferentzia egiten; hori baino gehiago da eta beste hainbat alderdi hartzen ditugu kontuan, hala nola, bidegurutzetan ongi ikustea ahalbidetzea, oinezkoen ibilbideak jarraitutasuna izatea, hiri-altzari egokiak izatea,...

Horren harira begira zer dioten Alfonso Sanzek "Calmar el trafico. Pasos para una nueva cultura de la movilidad urbana" bere liburuan:

Joan-etorriak oinez egiteko baldintza egokiak	Beste era batera esanda...
1. Atsegintasun soziala, paisaia erakargarriak	- <i>Jendearekin elkartzea eta hitz egitea ahalbidetuko duena. Polita eta atsegina izan dadila.</i>
2. Joan-etorriak sortzen dituen leku gehienetara iritsi ahal izatea eta haiek elkarrekin lotu.	- <i>Jendea joan ohi den tokiak elkar lotuko dituen.</i>
3. Distantzia txikiak helburu izan daitezkeen lekuetara.	- <i>Udalerriko leku inportanteenetara distantzia txikiak egon daitezela.</i>
4. Ingurumenaren kalitatea -zarata eta kutsadura txikiak-.	- <i>Zarata gutxiko lekuak eta airearen kutsadura urria izan dadila.</i>
5. Ezaugarri geometriko egokiak aurreikusitako erabiltzaile-mota eta kopuruaren eta hartuko dituen funtzio eta ekintzen artean.	- <i>Kaleak dimentsio egokiak izan ditzala bilduko diren pertsonak hartzeko eta burutuko diren ekintzak egiteko.</i>
6. Segurtasuna eta erosotasuna, bidegurutzetan eta bide-tarteetan oinezkoak gurutzatzeko.	- <i>Bidegurutzetan eta bide-tarteetan oinezkoak seguru eta eroso senti daitezela.</i>
7. Seinale egokiak oinezkoek informazio zuzena izan dezaten.	- <i>Seinaleak egokiak eta oinezkoek erraz ulertzekoak izan daitezela.</i>
8. Landaredia eta klimaren babesa, hiria oinezkoen joan-etorrietara egokitzeko.	- <i>Nahiko eta beharrezko landaredia egon dadila.</i>
9. Hiri-altzari, zolaketa eta argi harmoniatsuak eta funtzionalak.	- <i>Hiri-altzariak (eserlekuak, barandak...), zoru-mota eta argiak egokiak izan daitezela.</i>
10. Eraikitze- eta mantentze-kostu txikiak.	- <i>Eraikitze- eta mantentze-kostuak ahalik eta txikiak izan daitezela.</i>

Ze tresnak ditugu horretarako?

- Helburu horiek lortzeko Udalak giltzarri diren bi tresna ditu:
 - Mugikortasun-plana.
 - Irisgarritasun-plana.



- Eta orain da hori dena lantzeko garaia, *Udalak irisgarritasun-plana eguneratu egin behar duelako eta, horrekin batera, oinezkoen mugikortasunari buruz Mugikortasun-planean jasotako edukiak gaurkotu egin behar dituelako.*



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



2. Erronka berria planteatu diogu Agenda 21eko Foroari

Gaian kokatuta, bi dokumentu horiek aztertu egin behar direla aprobetxatu behar dugu herritarren ikuspegia eta ezaguera bertan txertatzeko. Horregatik, **erronka berria** planteatu diogu Agenda 21eko Foroari.

“Foroarekin batera, oinezkoen egungo ibilbide nagusietako eta, oro har, Legazpiko auzoetako irisgarritasuna eta adeitasuna aztertu nahi dugu. Ezaguera eta eduki hori baliagarria izango da mugikortasun-plana eta irisgarritasun-plana eguneratzeko eta, hori egitearekin batera, Legazpiko espazio publikoak hobetzea lortuko dugu.”


Nola egin dezakegu hori? **2 urratsetan eta 2 tailerretan.**

Gai horri eskainiko diogu gaurko tailerra eta datorren azaroaren 8koa. Proposamena, bi urratsetan, honako hau da:

- 1. urratsa:** Legazpiko oinezkoen ibilbide nagusiak kontrastatzea, haien irisgarritasuna eta adeitasuna lantzeko eta bermatzeko.
Hau da, Legazpiko oinezkoek gehien erabiltzen dituzten ibilbideak identifikatu nahi ditugu, horiek izango direlako irisgarritasuna eta adeitasuna bermatu behar dutenak.
- 2. urratsa:** oinezkoen egungo ibilbide nagusietako irisgarritasuna eta adeitasuna aztertzea –eta oro har, baita Legazpiko auzoetakoa ere–.
Nola daude gaur egun? Zeintzuk dira “puntu beltzak” ibilbide eta eremu horietan? Zeintzuk dira presaz konpondu beharrekoak?

3. Irinarekin hasten gara: Gaur 1. urratsari ekingo diogu eta Legazpiko oinezkoen ibilbide nagusiak kontrastatuko ditugu

Joan den 2006ko mugikortasun-planetik abiatuta, Legazpiko oinezkoek egiten dituzten ibilbide nagusiak berrikusi eta kontrastatu ditugu.




Agenda 21eko
Foroaren
ahotsa

Agenda 21eko Foroak ontzat eman ditu ibilbide horiek eta joan-etorrietan oinezkoek maiz erabiltzen dituzten ibilbide berriak gehitu ditu (ondoko planoan urdin kolorearekin jaso dira):

- San Ignazio auzoko ibilbidea.
- Pilotalekutik beheko errotondara doan ibilbidea.
- Instituturako igoera.
- Latxartegi atzealdeko zonaldea.
- Bidegorriaren jarraitutasuna, errotondatik Mirandaolara.

Bestalde, taldeak oinezkoentzako ibilbide iritsi-erraza eta atseginarekin adibide bat eskaini du: "itsas pasealekua" da, kiroldegitik hirigunera doan ibilbidea. Jasota!


Planoa: Legazpiko oinezkoek joan-etorrietan gehien erabiltzen dituzten ibilbideak.



4. Hurrengo tailerrerako lana: 2. urratsa, oinezkoen egungo ibilbide nagusietako irisgarritasuna eta adeitasuna aztertzea.

Gaurko asmoa udaletxetik kiroldegira doan ibilbidearen irisgarritasuna bertatik bertara aztertzea zen baina ez dugu horretarako astirik izan eta, beraz, bigarren plan bat ("B" plana) planteatu beharrean aurkitu gara. Hau da **proposamena**:

- Ibilbideen planoak 6 gune edo zonaldetan banatu dugu.
- Eta Foroko hainbat kide prest agertu dira datorren azaroaren 8an egingo den tailerra baino lehen eremu horietako bateko edo bat baino gehiagoko irisgarritasuna aztertzeko.
- Horrela, egun horretan zuen behaketaren emaitzak jaso, partekatu eta gehitu ahal izango ditugu. Eta gainera argazkiak ekartzen badituzue, primeran!



Konpromisoa hartzen dugu!

- 1. zonaldea: Eugenio, M^a Cruz, Floren
- 2. zonaldea: M^a Cruz, Igor, Mila, Asun, Inés
- 3. zonaldea: Manuel, Sole, Feli, Sagrario Díaz
- 4. zonaldea: Feli, Pilar Makibar, Juncal, Xabier Baztarrika, Javier Gómez, Floren
- 5. zonaldea: Feli
- 6. zonaldea: Montse, Miguel Romarate, Javier Iraeta, Floren

Horrezaz gain, Eiluz elkarteak, ahal duen neurrian, zonalde guztiak aztertuko dituela esan du. Bejondeizuela!!!

Beraz, zuen laguntza eta prestutasuna eskertzen dizuegu; martxan dago "B" plana! Plana eskutan eta bakoitzak nahi duen moduan –ohar liburuxka batean oharrak jasoz, argazkiak ateraz...–, Legazpiko irisgarritasunari buruzko zuen oharrak espero ditugu hurrengo tailerrean. Oso garrantzitsua izango da zuen zuzen zuzeneko eta bertatik bertako informazioa eta ezaguera jasotzea!

5. Ohar garrantzitsuak



Agenda 21eko
Foroaren
ahotsa

Eta bukatzeko **hausnarketa garrantzitsua**: Mugikortasun-plana eta irisgarritasun-plana eguneratzeaz gain, Udalak zaindu egin behar du egingo diren obra eta hirigintza-jarduketara guztietan horrelako kontuak bete egingo direla; inportantea da hori.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Obrak zaintzea eta kontrolatzea erabakigarria da beraz. Jasota geratu da!

• Eta bukatzeko “berriak” eta hurrengo tailerrera hartutako lana gogora ekartzea

“Berrietan”...

- Olazabal institutuak “eskola iraunkorraren” titulua eskuratu du eta hori eskola-agenda 21eko programan izan duen ibilbidearen emaitza da. Zorionak!!!
- Eta modu laburrean bada ere, aurtengo Erreka Egunean eta mugikortasunaren astean antolatu diren ekintzak oso ondo burutu direla aipatu eta ospatu beharrean gaude.

Eta bukatzeko gogora ekarri nahi dugu oinezkoen ikuspegitik gure kaleak eta auzoak aztertzeko guztiei egin dizuegun gonbita. [Nola daude gaur egun? Zein leku eta alderdi hobetu behar dira? Zeintzuk dira presazkoak?](#)

Horretaz luze hitz egingo dugu datorren azaroaren 8an egingo dugun tailerrean.... zain izango gaituzue!

Bitartean, ongi bizi eta eskerrik asko!!!
Beti bezala, plazer bat izan da!